

Esp. zk.: 20-FKF-A.2.

Nº Expte.: 20-FKF-A.2.

Kirol klubentzako laguntza deialdia, izandako kirol arrakastagatik.

Convocatoria de ayudas a Clubes por su éxito deportivo.

Kirolaraba Fundazioak asmoa du diruz laguntzeko goi mailako kirolari eta/edo taldeak dituzten kirol klub eta/edo elkarte federatuek eliteko edo goi mailako jardueretan parte hartzeagatik sortutako gastuen finantzaketa, izandako kirol arrakastagatik.

La Fundación Kirolaraba Fundazioa contempla apoyar económicamente la financiación de los gastos ocasionados por la participación de Clubes y agrupaciones deportivas, con deportistas y/o equipos de alto nivel federados en actividades de élite y/o alto nivel, como colaboración por el éxito deportivo alcanzado.

Fundazioaren 2020rako gastu aurrekontuak, haren patronatuak 2019ko urriaren 30ean onartuta, "Dirulaguntzak klubei, kirol arrakastarengatik" izeneko partida jasotzen du, 96.000,00 euroko zuzkidurarekin.

El presupuesto de gastos de la Fundación, para el año 2020, aprobado por el Patronato de la misma, el día 30 de octubre de 2019, recoge la partida denominada "Ayudas a Clubes por su éxito deportivo", con una dotación de 96.000,00 euros.

Horretarako, aginduzkoa da aipatutako jarduerak bete beharreko berariazko arau esparrua zehaztea, fundazioak dirulaguntza egokiak bideratu ditzan.

A tal fin, es preceptivo establecer el marco regulador específico al que han de ajustarse las actividades citadas para las que la Fundación arbitre las oportunas subvenciones.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

XEDATZEN DUT

DISPONGO

Lehenengoa.- Onestea goi mailako kirolari eta/edo taldeak dituzten kirol klub eta/edo elkarte federatuentzako 2020ko laguntza deialdia, izandako kirol arrakastagatik; gehieneko zuzkidura 96.000,00 eurokoa izango da, eta honek arautuko du: Foru Gobernu Kontseiluaren 50/2019 Foru Dekretuaren pean izango da deialdia, azaroaren 12koa, (2019ko azaroaren 20ko ALHAOn argitaratua, 134. zenbakian), onetsi zituena lehiaketa bidez emango diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri orokor arautzaileak eta ebazpen honetako eranskinean geri diren oinarri espezifikoak.

Primero.- Aprobar la convocatoria de ayudas a Clubes y agrupaciones deportivas, con deportistas y/o equipos de alto nivel federados, por el éxito deportivo alcanzado, que regirán en el ejercicio 2020, con una dotación máxima de 96.000,00 euros, que se regulará por lo previsto en el Decreto Foral 50/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 12 de noviembre, publicado en el BOTA nº 134, de 20 de noviembre de 2019, que aprobó las bases generales reguladoras aplicables a las subvenciones que se otorgan en régimen de concurrencia competitiva y las bases específicas que se incluyen en el Anexo a ésta Resolución.

Bigarrena.- Gastu hau estaltzen duen aurrekontu partida haren patronatuak 2019ko urriaren 30ean onartutakoa da, "Dirulaguntzak klubei, kirol

Segundo.- La partida presupuestaria que ampara este gasto es la aprobada por el Patronato de la misma, el día 30 de octubre de 2019, denominada

arrakastarengatik” izenekoa.

Hirugarrena. - Fundazioaren patronatuko lehendakariak ebatziko du deialdia, gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada egon, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Laugarrena. - Dirulaguntza eskaerari baiezkoa eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie, bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin.

Bosgarrena. - Ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio fundazioa atxikita dagoen saileko diputatuari, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera zenbatzen hasita, bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 122. artikuluan xedatutakoarekin. Errekurtsuaren ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez. Epe hori igaro eta ebazpenik eman ez bada, errekurtsua ezetsi dela ulertu behar da.

Errekurtsuaren ebazpenak administrazio bidea amaitzen du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatuta.

“Ayudas a Clubes por su éxito deportivo”.

Tercero.- La Presidencia del Patronato de la Fundación resolverá la convocatoria en el plazo máximo de seis meses desde la publicación de la convocatoria en el BOTHA. Transcurrido el plazo máximo sin que haya recaído resolución expresa, los/as interesados podrán entender desestimada la solicitud.

Cuarto.- En la resolución, caso de ser positiva, se hará constar cuantía de la subvención, forma de pago, programa o actividad afectada, documentación a presentar y condiciones en que se otorga, notificándose a las beneficiarias, conforme a lo previsto en los artículos 42 y 43 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimientos Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Quinto.- La resolución podrá ser recurrida en alzada ante la Diputada o Diputado titular del Departamento al que este adscrita la Fundación en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente al de su notificación, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 122 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. El plazo máximo para dictar y notificar la resolución será de tres meses. Transcurrido este plazo sin que recaiga resolución, se podrá entender desestimado el recurso.


La resolución del recurso agota la vía administrativa y contra la misma podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-Gasteiz conforme a lo previsto en el artículo 8 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a su notificación.


Seigarrena.- Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Sexto.- Publicar la presente convocatoria en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz.

20 FEB 2020


Ana M. del Val Sancho
Fundazioko lehendakaria / Presidenta de la
Fundación


Pablo de Oraá Oleaga
Patroia / Patrono

